

zuten sail ortakoa. Aipatu dan Zaragoza-ko biltzarrean ere parte artu zuen Bizkaiko ordezkarien artean.

Euskaltzaindiak 1919 urtean urgazle bezela artu zuen eta euskerazko lanetan ibilia da: Erizkizundirako gaiak biltzen, Azkue-ri iztegi lanetan laguntzen eta abar.

Gerra ondoren 1941 urtean Euskaltzaindia berriz piztu zanean euskaltzain izendatua izan zan eta sekretario. Il arte iraun du bere karguan.

1957 urteko EUSKERA-n ikusi ditekete R. M. Azkue-ren gorazarrean Bilbon egin zuen itzaldia.

Bizkaiko Kultura Biltzarrean ere parte artzen zuen.

Liburu bat dauka argitaratua: "Zurtasun-Gogoa". Gregorio Mujica-k egia da eta N. Oleaga-k euskeratu zuen besteren eskabidez.

Azken denborararte egin diran Bizkaiko bertsolarien txapelketetan eta bestelako biltzarretan parte artu du.

Biblioteka ugaria utzi du.

Euskaltzaindiari oso emana zan eta arek asko zor dio. G. b.

### **IGNAZIO LARRAMENDI (1874-1960)**

Eneko Larramendi, Bera de Bidasoa-n sortua 1874 urteko maiatzaren 14-garren egunean, eta hiri horretan ila 1960-ko agorraren 10-ean.

Bere gurasoak bera bezala espartingileak izan ziren. Kontralto boz eder baten jabe zen. Madrilen egon zen Iruñeko Orfeonarekin Alfonso XIII-garren ezteietan kantatzeko eta karia hortara domiñu eder bat eman zioten. Euskal olerkari pollita zen eta liriko tankera osoko poema eta bertsu eztiak utzi dauzigu. Itxura eder bateko gizon prestua eta ona izan zen.

**A. Irigaray**

### **BERNARDO MARIA GARRO BASTERRECHEA (1891-1961)**

Mundaka-n jaio zan 1891 agustuaren 22-an eta umetatik zekizkian euskera eta erdera. Bilbon il zan 1960 irailaren 14-an.

Bilboko "Escuela de Comercio"-n karrera egin ondoren emezortzi urtekin Argentina-ra joan zan eta bertan igaro zituen zazpi urteak laguntasun aundia eman zioten euskerazko izkera geienak ikasteko, ango euskaldunak, urteen buruan, euskera-nastu batean mintzatzen baitira (1).

(1) Ala aitortzen du berak Aita I. Villasante ri zuzendutako karto batean.